

## Azaroak 25

Emakumeonganako  
Indarkeriaren  
Kontrako  
Nazioarteko Eguna  
2023

### EGITURAK GORPUTZETAN

Hamaika forma, sistema berbera

Haserre gaude. Nazkatuta gaudela esateaz nazkatuta. Erailketak zenbatu eta salatu behar izan ditugun beste urte bat izan delako amorratuta. Erasoak egunero ikusi eta jasan ditugulako sutan.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako ibilbideari eta borrokari esker ezin uka dezakegu aldaketak eman direla jendartean azken urteotan. Baina aldaketa gehienak azalekoak izan dira. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonial eta arrazistak bere horretan jarraitzen du. Sistema hori bera da indarkeria matxista ahalbidetzen duen egitura.

Plano juridiko politikoan, sozioekonomikoan eta kulturalean eman beharreko aldaketak modu artukulatu batean ulertu behar ditugu. Indarkeria matxistarekin amaitzeko estrategiak integrala izan behar du eta aldaketak plano guztietan exijitu behar ditugu, eta bakoitzerako estrategiak martxan jarri. Izan ere, badakigu egitura aldatzeak ahalbidetu dezakela aldaketa kultural oso bat. Era berean, aldaketa kultural erradikal bat emateak ekar dezake egitura bera aldatzeko presio egitea.

Eskuin muturraren gorakadak indartutako diskurtsoek nahiz bestelako mugimendu erreakzionarioen diskurtsoek ere, indarkeria matxistaren egiturazko ulerkerak desmuntatu nahi dute. Diskurtso horiek esistitzeak berak indarkeria sortzen du gugan, emakume, trans eta bollerongan.

Indarkeria horrek hamaika forma hartzen ditu, baina gorputz konkretu batzuetan aplikatzen da zuzenean. Indarkeria matxista sostengatzen duen sistema berberak sortzen ditu gure gorputzek pairatzen dituzten bestelako indarkeriak ere.

Prekarietatea, soldata arrakala, lan baldintza onartezinak, ikusezin diren eta ordaindu gabeko zaintza lanak, pentsio miserableak... Eta indarkeria horiek guztiek ere gure gorputzetan eragiten dute. Horregatik hitz egiten dugu egiturak gorputzetan duen eraginaz. Egiturek baldintzatzen eta arautzen dutelako gorputzen nolakotasuna.

Argi dago, beraz, arrazoiak soberan ditugula kaleak hartzeko eta antolatzen jarraitzeko. Beste urtebetez ozen diogu autodefentsa feministaz armatuta gaudela eta sistema hau irauli arte ez dugula amore emango. Gure arteko aliantzak sortzen, mantentzen eta indartzen jarraituko dugu. Feminismoetatik proposamen integralak egiteko dugun gaitasun eta anbizioak ez du mugarik, eta horregatik azaroaren 25ean eta azaroaren 30ean kalera aterako gara. Zaintza zerbitzu publikoen pribatizaioa ere indarkeria delako. Nazkatuta gaudelako, indarkeriaz beteriko bizitzak izateaz nazkatuta gaudelako.

Sistema irauliko dugu. Gorputzekin egiturak hautsiz eta erantzuteko hamaika formen bidez Euskal Herria feminista egingo dugu.

Gora borroka feminista!  
Gora autodefentsa feminista!  
Gora Bilgune Feminista!